

# Busturialdea-Urdaibaiko

ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOA

## 13 proiektu gure eskualdea eraldatzeko






# Busturialdea- Urdaibai bultzatzeko plana

**Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, Busturialdea-Urdaibaiko 20 udalekin** lankidetzan (Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gaategiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta), taldean lan egin dugu eskualdeko eragileekin entzutetik eta lan egitetik sortutako plana diseinatzeko.

Emaitza **13 proiektu** dituen ibilbide-orria da, aldian-aldian herritarren beharrak kontuan hartuta berrikusi eta eguneratuko den plan bizi eta parte-hartzaile baterako. Planak **78,4 milioi euroko inbertsioa** eskatzen du **2030era arte**.

# 13 proiektuak begiratu batean

- 1 Autzagane - Muxika errepidea
- 2 Muxika - Bermeo bidegorria
- 3 Garraio publiko gehiago eta hobea
- 4 Rehaviva + Toki-Enplegu Plana
- 5 Alokairuko etxebizitza publiko gehiago
- 6 Lanbide Heziketa indartzea
- 7 Eskualdeko industrialde berria Muxikan
- 8 Inama lurzatia birgaitzea
- 9 Industria teknologikoaren aldeko apustua
- 10 Bermeoko portua eta Ekonomia Urdina
- 11 Aktibo kulturalak eta naturalak baloratzea
- 12 Gernika-Lumoko azoka, eskualdeko bihotza
- 13 Garapen Ekonomikorako Eskualde-Bulego berria



# Mugikortasuna eta konektibitatea

38 milioi €

1

## Autzagane - Muxika errepidea

BI-635 errepidea hobetzea Muxikan, **ikuspena eta bihurguneak hobetuz**. Oka auzotik Ariatzara oinezkoentzako ibilbidea sortuko da. **2 metroko espaloia, auzoak seguruago komunikatzeko**.

2

## Muxika - Bermeo bidegorria

**Bidegorrien sarea handitzea**, bizikletaz ibiltzea autoaren benetako alternatiba izan dadin. Ibilbide berriak **Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Murueta, Forua, Gernika-Lumo eta Muxika** lotuko ditu. Trafiko gutxiago, aire garbiagoa eta mugitzeko aukera gehiago.

3

## Garraio publiko gehiago eta hobea

**Gure mugikortasunaren ardatz nagusia trena izango da**. Dagoeneko eskuinaldean martxan dago eskariaren araberako garraio-zerbitzu pilotua eta **geltoki intermodal berria Mundakan**, trenera konektatuta. Errazagoa izango da eskualde barruan eta kanpoan autoaren menpe egon gabe mugitzea.



# Etxebizitza eta gizarte- kohesioa

4,19 milioi €

## 4 Rehaviva + Toki-Enplegu Plana

**Proiektu bikoitza da: egoera zaugarrian dauden eskualdeko gazteek** prestakuntza praktikoa jasoko dute birgaitze jasangarriari buruz, eraikin publiko zaharrak zuzkidura-etxebizitza bihurtuz, gero etxebizitza horietan bizi ahal izateko. Aldi berean **langabezia dauden 45 urtetik gorako pertsonak** plan espezifiko bat izango dute enplegu berriak lortzeko.

## 5 Alokatzeko etxebizitza publiko gehiago

Hainbat udalerritan alokatzeko projektatutako etxebizitza publikoen eraikuntza bizkortuko da, Errigoitin hasita. Horrela **etxebizitzarako sarbidea orekatzen da** gune nagusietan biztanleria-kontzentrazioa gertatzea saihestuz.



# Ekonomia sustatzea eta prestakuntza

26,25 milioi €

## 6 Lanbide Heziketa indartzea

**Barrutialden eta Nautika Eskolan** ekipamendu modernoetan eta espazio eguneratuetan inbertitzea. Gure gazteek punta-puntako teknologiak ezagutzea eta etorkizuneko enpleguetarako prest egotea nahi dugu. Eta, gainera, tokiko enpresekiko lotura indartzen dugu gazte horien enplegarritasuna handitzeko.

## 7 Muxikako industrialdearen sarbideen hobekuntza

La **500.000 m<sup>2</sup>**-ko azalera duen espazio baterako sarbideak hobetzea tokiko enpresak hazteko eta konpainia berriak erakartzeko. Horrek enplegu gehiago, jarduera ekonomiko gehiago eta eskualde osoko industriari bultzada ematea esan nahi du.

## 8 Inama lurzatia birgaitzea

**Muxikako lehengo Inama** lurzatia birgaitzea eta lehengoratztea. 60.000 m<sup>2</sup> baino gehiago eskuragarri tokiko enpresak finkatzeko eta enplegua sortzeko.

9

## Industria teknologikoaren aldeko apustua

Balio erantsi handiko enpresak nahi ditugu.

**Sektore berritzaileetan inbertsioak bultzatzea**, hala nola energia metatzeko teknologia aurreratuetan.

10

## Bermeoko portua eta Ekonomia Urdina

**Portuko azpiegiturak** modernizatuko dira arrantza indartzeko, salgaien trafikoa handitzeko eta aisialdiko nautika bultzatzeko. Amarraleku, pabiloi eta izotz-fabrika berriak jarriko dira eta jarduera ekonomikoak garatuko dira ekonomia urdinaren esparruan.



# Kultura, historia eta natura



9,9 milioi €

11

## Aktibo kulturalak eta naturalak baloratzea

Erromatarren historiatic euskal emigrazioa, tartean **Santimamiñeko** haitzuloetatik igaroz. Erreferentziazko guneak sortzea eta modernizatzea, adibidez **Kalare** (Euskal Emigrazioaren Interpretazio Zentroa), **Foruko Erromatar Herrixka** edo **Kantera Gorria**. Bizirik dauden museoak, teknologia berriak eta hezkuntza-jarduerak dituztenak.

12

## Gernika-Lumoko azoka, eskualdeko bihotza

**Azokako plaza eroslekua baino askoz gehiago izango da:** motor ekonomiko eta sozial bihurtuko da. Espazio moderno honek **tradizioa eta etorkizuna** lotuko ditu, **tokiko produktua** indartuz, hiriguneari bitzta emanez eta jendea erakarriz.

# Eskualde- governantza

13

## Garapen Ekonomikorako Eskualde-Bulego berria

Ahalegin publiko eta pribatuak batuko ditugu lan hobeto egiteko, laguntza gehiago erakartzeko eta proiektu handiagoak finkatzeko. Agentzia hau **udalen, enpresen eta gizarte-eragileen topagunea** izango da enplegua, prestakuntza, turismoa, ekintzailtza eta landa-garapena sustatzeko.



# Beste jarduketa estrategiko batzuk

Trakzio-proiektuez gain, **Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak** beste jarduketa estrategiko batzuk aurreikusten dituzte, dagoeneko esleituta dauden aurrekontu arrunte-tako **225 milioi euro gehiagorekin** finantzatuko direnak, eskualdearen garapen jasangarria eta lehiakortasuna indartzen dutenak. Horien artean honako hauek nabarmentzen dira:

①	Sollubeko errepidea hobetzea	②	Ur-hornidurako sistema berriztatzea	③	Saneamendu -sistema egokitzea	④	Ingurumena lehengoratzeko jarduketak egitea Biosfera Erreserban
	66 milioi €		56 milioi €		24 milioi €		40 milioi €
⑤	Trenbidearen modernizazioa	⑥	Eskualde-industrigune berria Muxikan	⑦	Inamaren partzela erostea	⑧	Bermeoko portuaren eraldaketa
	18 milioi €		12 milioi €		6 milioi €		3 milioi €



**Busturialdea-Urdaibaik guztira 303,4 milioi euroko inbertsioa jasoko du.**

